

TUBERKULOSIAREN EGUNA **Martxoaren 24ean**

Tuberkulosia bakteria batek sortzen duen gaixotasuna da. Ohikoena biriketetan sortzen dituen sintomak dira, nahiz eta gorputzeko beste ataletan ere eragin.

“Mycobacterium tuberculosis” bakteria da eragilea. Mikroorganismo hau pertsonaren barrenean modu “latente” –an egon daiteke urteetan zear, hau da, lo egongo balitz bezala. Kasu honetan ez dago sintomarik eta ez da kutzakorra.

Eman ditzazkeen sintomak: arnas ongi hartzeko zaitasuna, eztula flemekin, batzutan flemak doloekin, sukarra, izerdia gehienbat gauean, pisua galtzea, etab.

Gaur egun, mundu osoko biztanleriaren heren bat dago kutzaturik, aldiz, hauen %15 a gutxi gora behera gaixotuko da sintomak emanez. Kasu hauetan antibikoen konbinazio bat ematen da tratamendurako, sei hilabetez oro har.

Garapen bidean dauden herrialdeak dira inzidentzia eta hilkortasun tasa handienak dituztenak Nigeria, India, Afrika hegoaldea, etb. Honi aurre egiteko Munduko Osasun Erakundeak programa bat jarri du martxan “ Fin a la TBC” deritzaiona. Programa honek 2030 urte bitarterarte bi helburu nagusi ditu: %90 ean hilkortasuna jaitsi eta %80 ean inzidentzia jaitsi.

Txertoa badago, “BCG” txertoa da. Nafarroako kalendarioan ez dago barneratuta, bakarrik kasu berezietan gomendatzen baita.

Prebentzioa gaixotasuna pairatzen ari direnen aho tantak ekiditean datza, bai hitz egiten ari denean edota eztula. Eskuak ongi garbitu, etxea ongi aireztatu. etxean bere gelan gotea gomendatu, maskarila jartzea behar denean....

Tuberkulosiaz diagnostikatu dioten pertsona batekin egon bazara, hurbileko kontaktua edukiz, edota lehen aipatutako sintomak edukiz gero, medikuarengana joatea izango litzateke egokiena. Hark hurrengo pausuak zein diren erabakiko lituzke, adibidez “mantoux” proba bat egitea osasun etxean bertan. Proba hau erizainak egiten du, besaurrean larruazal azpian txertatzen da produktu bat, non hiru egunetara bertan sortu den erreakzioa irakurtzen den. Honek medikuaren hurrengo pausuak orientatzen ditu.

Oro har, gaixotasunak kutsatzea ekiditeko badaude eman behar diren oinarrizko pausuak: eskuak ura eta xaboiarekin ongi garbitu, behatz tarreak eta eskuen bi aldeak ongi igurtziz. Baita ere, etxea ongi aireztatu, gaixorik dagoenaren toallak, tresnak ez erabili, elikadura osasuntsu bat eraman frutak , barazkiak, zeralak, etab. janez. Prebentzioa da gure esku dagoena.

